

LEPEREN OHIARTZUNA

Ikastola ttikia zenaren dirdira
a(ban)tsu oharkabeen haunditzen ari da
eta hara gure lorpenaren segida
hemen lepaluzeak euskaraz mintzo dira

Euripean liburua
haren azpian burua
haunditzen ikastea da haur guzien helburua

Gure artean dugun goxotasun hori
juntatu gira sagu, gatu eta xori
guretako dena da hartu ta tori
ongi irakasten dena ikasten da ongi

Leperen kantu goxoa
dantza ederren altxoa
bihotz xoko batean gordetzen dugu otsoa

Ateraldi, eskulan ta ikusgarria
lagun berriak, obrak, jendeen irria
urtea finitzean gelako argazkia
Arberoa ikastola da hori guzia

Euripean liburua
haren azpian burua
haunditzen ikastea da haur guzien helburua

Euripean liburua
haren azpian burua
haundituz ikastea da haur guzien helburua

Ortzi Idoate

